



TOLOSAKO  
UDALA

## **5. DIRULAGUNTZA LERROA. NAZIOARTEKO LANKIDETZAN BOLUNTARI DIHARDUTENENTZAT DIRULAGUNTZAK**

Kooperanteei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien diru-laguntzak dira. Tolosako herritarrak herrialde behartsuen garapenean laguntzeko lankidetzak-ekintzetan sentsibilizatzeko eta herrian elkartasun kultura sustatzeko tresna bat da hau. Hautatutako pertsonak zuzenean parte hartuko dute herrialde horietako garapenerako kooperazio-ekintzetan, GGKE baten bidez.

Gastu ezberdinak ordaindu ahalko dira. Dirulaguntzen zenbatekoa gehienez ere kostuaren %50a finantzatuko da, eta gehienezko muga 600€koa eta gutxienezkoa 100€koa izango da.

NORK ESKA DEZAKE?

Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Eskaera egin aurretik, adinez nagusia izatea.
- Eskaeraren aurkezpen-data baino gutxienez urtebete lehenagotik Tolosan erroldatuta egotea, eta GGKE batekin lan-harremanik ez izatea.
- GGKE batek sinatutako lankidetzak-konpromiso bat, gutun bat edo berme bat edukitzea.
- Garapenerako lankidetzan eta boluntariotzan prestakuntza dutela egiaztatzea, edo, halakorik ezean, erakunde batek eman beharreko ikastaro bateko aurreinskripzioa aurkeztea.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Identifikazio Agiria.
- Curriculum Vitae-a: lan-bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana) eta agertu nahi diren merituen ziurtatzeko agiriak.
- Erakunde lokal baten abala (helburuko herriarena) non adieraziko den ados daudela aipatutako pertsonak lagun dezan GKEak burutzen dituen ekintzetan.
- Lan egitasmoa.
- Garapenerako lankidetzan eta boluntariotzan prestakuntza egiaztatzea edo erakunde batek eman beharreko ikastaro bateko aurreinskripzioa.
- Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza.